

Etika Publikorako Batzordea

Aztergaia: 4/2019

ERABAKIA, (...)AK EUSKO JAURLARITZAKO (..)EN ZUZENDARI (...)AREN AURKA JARRITAKO SALAKETARI BURUZKOA. SALAKETA, ZEHAZKI, (...)AK ORAINGO KARGURAKO IZENDATU AURRETIK (...)EAN EGIN ZUEN IRAKASKUNTZA-JARDUERAREN HARIRA JARRI ZEN, ETIKA ETA JOKABIDE KODEAN (EJK) JASOTZEN DIREN BALIOAK, PRINTZIPIOAK ETA JOKABIDEAK URRATU ZITUELAKOAN.

1.- 2019ko ekainaren 6an, Etika Publikorako Batzorde honetara igorritako mezu elektronikotatik, interesdunak informazioa eskatu du, eta 2005etik 2012ra bitarte Eusko Jaurlaritzako (...)en zuzendari (...)ari lotutako gertaera batzuen berri eman du, zeren eta, bere ustez, egiazkoak izanez gero, Euskal Herriko sektore publikoko goi-kargudunen Etika eta Jokabide Kodean (EJK) bildutako printzipio, balio eta jokabideen aurkakoak izan litezke.

2.- Hasteko, EPB honi galdetzen dio egun kargu publikoa den pertsona EJKri atxikita dagoen ala ez.

3.- Jarraian, EJK honi jakinarazi dio zein diren salatzailearen ustez kode horretan jasotakoa urratzen duten gertaerak.

4.- Salaketa-idatziaren arabera, egun kargu publikoa den pertsona (...)ko (...) irakasle da, eta, orain dela urte batzuk, kontratua aldatu zioten, beste irakasle batzuei bezala; hala, eta 3 edo 4 orduko dedikazioa izatetik 6 ordukoa izatera pasa zen. Salatzailearen arabera, irakaskuntza-jardueraren ordu-kopurua igo zitzaion –eta horrekin batera lansaria– (...) ziren ikasleak atenditzeko premiari erantzuteko, baina, dirudienez, irakasle horiek ez dira inoiz klase horietara agertu.

5.- Salatzaileak adierazi du gertaera horiek salatu zituela 2011n eta (...)ko Ikuskaritza Zerbitzuak egiaztatu.

6.- Erakusteko zer desfase dagoen egun kargu publikoa den pertsonari ofizialki esleitutako irakaskuntza-eskolen eta benetan emandakoen artean, salatzaileak taula bate erantsi du, zeinean jasotzen baita 2005etik 2012ra arteko zazpi ikasturte akademikoei buruzko informazioa. Salatzailearen ustez, taulako datuek erakusten dute zein izan zen kontratua 6 ordura zabaldu arteko benetako betetze-maila: 2005-2006 ikasturtean %36, eta 2006-2007 ikasturtean %53.

7.- Horretaz gain, eranstu du (...) 2007-2008rako asteko 6 ordura igo ziola kontratua, nahiz eta benetan aurreko ikasturteko ordu-kopurua ematen jarraitu zuen: 63. Eta eranstu du hurrengo urteetan ere kontratuz bete beharreko orduen betetze-maila baxua izaten jarraitu zuela, ofizialki zegokionarekin alderatuta.

8.- Saltzailearen arabera, ikasturte horietan gertatutakoak 30.000 euro baino gehiagoko kalte ekonomikoa ekarri die (...)ri eta euskal zergadunei.

9.- Azkenik, bi ohar osagarri, bere ustez deigarri, egin ditu saltzaileak:

egun kargu publikoa den pertsonak 2011-2012ko ikasturtean 6 orduko kontratuarekin jarraitzen zuen, eta, gainera, kontratuan ofizialki 60 ordu agertzen ziren, praktika (...)ak egiteari lotuak, nahiz eta eskola horietara agertu ere egin ez.

Baina are deigarriago egiten zaio iruzur hori egindako inork zehapenik ez jasotzea (...)ko aurreko (...)ren partetik, ez baitzien eskatu ezta iruzurra eginez jasotako dirua itzultzea ere, nahiz eta iruzur horiek (...)ko Ikuskaritzak berak egiaztatuak izan.

10.- Aurrekoa kontuan, saltzaileak EPB honi eskatu dio balioetsi dezala ea gaur egun (...)ko zuzendari denak urratu dituen Euskal Herriko sektore publikoko goi-kargudunen Etika eta Jokabide Kodean (EJK) bildutako printzipio, balio eta jokabideak.

Horiek horrela, EPB honek, EJKren 16.4 artikuluko bigarren apartatuak adierazten dituen tresna telematikoak baliatuta, erabaki hau hartu du aho batez:

ERABAKIA:

I.- Aurrekariak

1.- Gobernu Kontseiluak 2013ko maiatzaren 28an onartutako Etika eta Jokabide Kodea (EJK) sortzearen helburua politikaren etika-zentzua berreskuratzea izan zen, bai eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza berreskuratzeko erronkari erantzutea ere. Horretarako, Etika eta Jokabide Kodeak aditzera ematen du zer jokabide, jarrera eta portaera eska dakizkiekeen Eusko Jaurlaritzako goi-mailako zuzendaritza exekutiboko kide diren kargu publikodunei eta parekatuei, haien jarduera publikoak eta pribatuak bat etor daitezzen dokumentu horretan zehaztutako balio, oinarri eta jokabide-estandarrekin. Horren guztiaren helburua da integritatea eta eredugarritasuna sustatzea, Jaurlaritzaren irudi instituzionala gordetzea, haren

eraginkortasuna sendotzea eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza gutxitu ez dadin ahalegintzea.

2.- EJK-k bost balio ditu ardatz: integritatea, bikaintasuna, politika eta kudeaketa bat etorraraztea, lidergoa eta berrikuntza. Gainera, funtsezko sei printzipio ditu: inpartzialtasuna eta objektibotasuna; kudeaketari lotutako erantzukizuna; gardentasuna eta gobernatze irekia; onestasuna eta desinteres subjektiboa; errespetua eta eredugarritasuna. Balio eta printzipio horiek ardatz direla, Kodeak hainbat jokabide, jarrera eta portaera jasotzen ditu, eta EPB honek haiek erreferentziatzat hartuta jardun behar du, erantzun egokia emateko beren borondatez Kodearekin bat egiten duten kargu publikodunek eta parekatuek zein Kodearen xedapenak eraginkortasunez betetzeko benetako interesa duten gainerako pertsonak helarazitako gai eta zalantza etikoei.

3.- Horretarako, EJKren 16.3. zenbakiaren lehenengo tartekian ezarritakoaren arabera, EPBren eskumena da "Etika eta Jokabide Kodean jasotako balio, printzipio zein jokabideen balizko ez betetzei buruzko kezak edo salaketak jasotzea, halakorik balego, eta dagozkien izapideak bideratzea".

II.- EPB-RI AURKEZTUTAKO AZTERGAIA

1.- 4/2015 eta 1/2017 erabakietan adierazi genuenaren arabera, Etika eta Jokabide Kodea Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 28ko Erabakiaren bidez onartu zen. EHAAn argitaratzen denetik aurrera sortzen ditu ondorioak —urte horretako ekainaren 3an argitaratu zen, hain zuzen—, eta 2. puntuari zehaztutako kargu publikodunentzat soilik du indar loteslea, kargu publikodun horiek lege ezarritako prozeduraren arabera izendatu eta Kodearekiko atxikipena formalizatu ondoren. Kodearen 18.3 puntuak horrela ezartzen du, zehatz-mehatz ezarri ere: "Kodea banaka atxikitzearen ondorioz, kargu publikodunek eta parekatuek beren gain hartzen dute beren bizitza publiko zein pribatuan betiere Kodean berariaz adierazitako balio, printzipio eta jokabideen edukiarekin, asmoarekin eta espirituarekin bat datozen jokabide eta portaerak izateko betebeharra eta obligazioa".

2.- Ekainaren 26ko 1/2014 Legeak, zeinaren bidez erregulatzen baitira Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak, ez du aldatu EJK-k, onartua izan zen unetik beretik, ezarritako aplikagarritasun-eredu subjektibo eta denborazko hori. Lege horren 5, 6, 7 eta 8. artikuluetan, "kargu publikodunen jokabide-kodea zuzentzen duten printzipio orokorrak" jasotzen dira, eta printzipio horiek Legea indarrean sartu ondoren dira soilik lotesleak —Legea 2014ko azaroaren 1ean sartu zen indarrean—, eta 2. artikuluan zehaztutako kargu publikodunak soilik lotzen dituzte, kargu publikodun horiek ofizialki izendatu eta Legearen 11. artikuluan aipatzen den atxikitze sistemaren bidez Legearen aginduak betetzeko konpromisoa hartu ondoren.

3.- Ondorioz, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak Arautzen dituen Legeak 4. artikuluan aurreikusten duen katalogo eguneratuan sartuta dauden kargu publikoak betetzen dituzten pertsonak behartzen ditu soilik EJK-k –horrenbestez, baztertu egiten dira katalogo horretan ez datozenak–, eta izendapena formalizatu eta kargu-uzteak ondorioak dituen egunera arte behartzen ditu, baina ez bi denbora-mugarri horien aurretik, eta ondoren ere ez.

4.- Egun kargu publikoa den pertsona Dekretuaren bidez izan zen izendatua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko zuzendari eta denboraz eta formaz izenpetu zuen EJKrako atxikipen pertsonala. Betetzen duen kargua jasota dago kargu publikodunen Katalogo eguneratuan, zeina martxoaren 26ko 51/2019 Dekretuz onartu baitzen (68 zk-ko EHAAA; 2019ko apirilaren 8a; Eranskina: 8. I A), 8.1.1. puntua).

5.- Salaketa-idatzian agertzen diren gertaera guzti-guztiak (...)en zuzendari izenpetua izan aurretikoak dira, hau da, EJKra atxiki baino lehenagokoak. Areago, salaketak dioen bezala, gertaera horiek 2005etik 2012ra bitarte gertatu omen ziren, eta aldi horretan EJK ez zen existitu ere egiten, zeren eta, adierazi dugun bezala, 2013ko maiatzaren 28ko Gobernu Kontseiluaren Erabakiz onartu baitzen. Kotsiderazio guztiak ikusita, kontsulta bertan behera utzi beharko genuke, bestelako izapiderik egin gabe; izan ere, EPBren jardun-arlo subjektibo eta denborazkotik kanpo gelditzen da, EPB sortu aurretik gertatutako gertaerei buruzkoa da —bai eta EJK onartu aurretik gertatutako gertaerei buruzkoa ere, zeren gogora dezagun Kode horren ondorioz sortu zela Batzordea— eta, salatutako gertaerak gertatu zirenean EJKri atxikita ez zegoen kargu publikoduna ez zen pertsona baten jokabideari buruzkoa.

6.- Planteatutakoa kontuan, badago, hala ere, alderdi bat, komenigarri egiten duena interesdunak formulatutako salaketa *a limine* ez errefusatzea; hori egin baino lehen, komeni da salatutako gertaerak arreata handiagoz aztertzea.

7.- Hala, aurreko kasu batzuetan ohartarazi dugun bezala, EJK-k EPBren jardun-arloari ezartzen dizkion muga subjektiboek eta denborazkoek badute salbuespen bat. Salbuespen hori eredugarritasunaren balio etikoari lotuta dago; kargu publikodunek balio hori betetzeak ez du beti bide ematen kargu publikodun horiek izendapenaren aurretik edo beren bizitza pribatuan, hots, kargu publikodun diren aldetik dituzten eginkizunetatik kanpo, duten jokabidearen abstrakzioa egiteko.

8.- Etika eta Jokabide Kodearen 15 d) apartatuak hau ezartzen du: “Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko eta haren sektore publikoko kargu publikodunak edozein prozesu penaletan zein administrazio-zehapenetan inputatuz gero karguari dagozkion egiteko publikoak betetzeari lotutako gertaeren ondorioz, edota garrantzi publiko berezia duten ekintzen ondorioz, horren berri emango zaio Etika Publikorako Batzordeari, kasu bakoitzean egoki iritzitako gomendioak eman ditzan”. Ikus daitekeenez, Kodearen apartatu horrek berariaz aurreikusten du —nahiz eta hori salbuespena izan EJKn— kargu publikodun batek eredugarritasunari buruzko jarraibide etikoak haustea izendatu aurretik egindako

jarduketengatik edo "karguari dagozkion egiteko publikoak betetzeari lotuta" ez dauden jokabideengatik, betiere horiek guztiek "garrantzi publiko berezia" badute edo prozesu penal bat edo administrazio-zehapen bat abiatzea eragin badute eta, horren barruan, dena delako karguduna deklaratzera deitua izan bada ikertu gisa.

9.- 4/2015 Erabakian esan genuen bezala, salbuespen horrek erraz uler daitekeen logika bati erantzuten dio. Oro har, kargu publikodunek kargu publikodun diren bitartean eta, zehazki, kargu publikodun diren aldetik legez eman zaizkien eginkizunen esparruan diharduten bitartean dituzten jarrera, portaera eta jokabideetan soilik du eragina Kodeak. Beraz, Kodearen jarraibide etikoak ez dira aplikatzen kargu publikodunen izendapenaren aurreko gertaeretan, ez eta bizitza pribatua edo intimoan ere; arlo horiek EJKren aplikazio-eremutik kanpo gelditzen dira. Horixe gertatzen da, hain zuzen, printzipio hauekin: inpartzialtasuna; objektibotasuna; kudeaketari lotutako erantzukizuna; gardentasuna eta gobernatze irekia; onestasuna; ezaxola subjektiboa; eta begirunea.

Eredugarritasunaren kasuan, ordea, ez da hain erraza iraganaren eta orainaren arteko mugak zedarritzea eta bizitza publikoa eta pribatua zehatz-mehatz bereiztea. Zeren, kontuan hartzen badugu, 5.2.6 puntuan adierazten denez, zein den printzipio etiko horren oinarria –“kargu publikodunak erakundearen ispilua dira, herritarrei bezala erakunde publiko horretan diharduten gainerako pertsonen ere erakundearen irudia itzultzen diena, eta, horregatik, ez du ezer egin behar edo egin gabe utzi behar horrek kalte egiten badio, txikiena izanda ere, [...] Administrazioaren ospe, duintasun eta irudi instituzionalari, herritarrek sistema instituzionalean duten konfiantza ez gutxitzeko”–, argi dago kargu publikodunek ezingo dutela eredugarritasunik erakutsi baldin eta prozesu penal batean edo administrazio-zehapen batean inputatuta badaude “garrantzi berezia” duten gertaerengatik, nahiz eta gertaera horiek izendapenaren aurretik edo eman zaizkien eginkizunen baitan egindako jarduera ofizialetatik kanpo gertatu.

10.- Baina EJK-ko 15.d. puntuan ez da ezartzen kargu publikodun baten izendapena edo bizitza publikoaren eta pribatuaren arteko bereizketa guztiz hutsala denik eredugarritasunaren printzipioari lotutako jarraibide etikoak exijitzeko. Alderantziz, paragrafo horretan adierazten denez, EJKren aplikagarritasun subjektiboa eta denborazkoa agintzen duten arau orokorrak hausteko salbuespen bakar bat dago eredugarritasunaren arloan: kargu publikodunak “ikerketaren” xede izatea "edozein prozesu penaletan edo administrazio-zehapenetan". Hori bai, oinarrizko betekizun hori bete dela egiaztatu ostean, Kodeak ez du garrantzitsutzat jotzen ikerketa zergatik gertatzen den, "karguari dagozkion egiteko publikoak betetzeari lotutako gertaeren ondorioz" edo "bizitza pribatua egindako ekintzen ondorioz", baldin eta gertaera eta ekintza horiek "garrantzi publiko berezia" badute. Edonola ere, EJKren "hartzaileen" artean sartuta dagoen kargu publikodun bat "edozein prozesu penaletan zein administrazio-zehapenetan" ikertzen bada, horren berri eman behar zaio EPBri, “kasu bakoitzean dagokion gomendioa eman dezan”.

11.- Aztertzen ari garen gaiari dagokionez, salaketaren xede den karguduna ez dago sartuta ez prozesu penal batean, ez administrazio-zehapen batean. Baldin eta salatzaileak salatu dituen gertaerak modu sinesgarrian egiaztatzen badira, gertaera horiek irregulartasun administratibotzat edo, are, arau-hauste juridikotzat jo daitezke, altxor publikoari eragindako kalteagatik. Baina, gaur-gaurkoz, gertaera horiengatik ez da prozedura penalik ireki, ez eta administrazioko zehapen-prozedurarik ere. Salatzaileak berak idatzian aitortzen duenez, gertaera horiek (...)tzan salatu ziren bere garaian, eta (...)ko Ikuskaritza Zerbitzuak egiaztatu zituen; alabaina, egun kargu publikoa den pertsonari ez zitzaion zehapenik ezarri, eta, areago, ez zitzaion eskatu ustez iruzur eginez kobratu zuen dirua itzultzeko. Beraz, nahiko argi dago kasu honetan ez dela gertatzen EJKren 15d) apartatuan EPB honi kontsulta egiteko nahitaezkoztat jotzen den betekizun formala.

12.- Ordea, kontuan hartuta salatzaileak EPB honi salaketaren xede den kargudunaren jarduketan berri eman diola, egiazkoak izanez gero arau-hauste juridikotzat har daitezkeenak, EPB honek uste du EJKren 16.3.2. apartatuan ezarritakoaren arabera jokatu behar dela, hau da: egiaztatuz gero salatutako gertaerak arau-haustea izan daitezkeela, gaia dagokion organo eskudunaren esku utzi behar da, hark erabaki dezan, aurretik gertaerak egiaztatu eta horien larritasuna aztertu ondoren, informazio-espeditentea edo zehapen-espeditentea irekitzea dagokion ala ez.

Hori guztia aintzat hartuta, EPBk honako hau erabaki du, aho batez:

ERABAKIA:

1.- Ez onartzea interesdunak aurkeztutako salaketa, Eusko Jaurlaritzako (...)en zuzendari egun kargu publikoa den pertsonaren aurkakoa, salatutako gertaerak kargu publiko izendatu aurrekoak izateagatik eta, beraz, EJK-k EPB honen jarduketari ezarritako denbora-mugak gainditzeagatik.

2.- Ebazpen honen berri ematea salatuari, jakitun egon dadin eta dagozkion ondorioetarako.

3.- Erabaki hau eragin duen salaketan jasotako gertaeren berri ematea (...)ko (...)ri, erabaki dezan, hala badagokio, diligentziak sustatzea edo administrazioko zehapen-prozedura irekitzea.



Josu Iñaki Erkoreka Gervasio
Etika Publikorako Batzordeko burua

Vitoria-Gasteiz, 2019ko ekainaren 14a.